



EUSKARA JENDEA

Gerren arteko Pizkundean

C MAILA irakaslearen kaiera

“EUSKARA JENDEA” DOKUMENTAL SORTA

Zein izan da gure hizkuntzaren ibilbidea historian zehar? Nola bizi izan du gure jendeak euskara? Nolako eragina izan dute hurbildu zaizkigun herri eta kultura desberdinek?...

“Euskara jendea” dokumental sortak galdera horien eta beste hainbaten erantzunak eskaini nahi ditu. Horretarako, Xamarrek 2006an Pamiela etxean argitaratutako izenburu bereko liburua hartu du abiapuntu, eta liburuak bezala, modu ulerterraz eta atseginean gure hizkuntzak eta gure jendeak eskuz esku egin duten ibilbide luzera hurbiltzea du helburu.


Lana 45 minutu inguruko sei dokumentalek osatzen dute:

- I. HISTORIAREN ATARIAN
- II. ERROMAKO INPERIOAN
- III. ANIZTASUNAREN BIDEAN (ERDI AROA)
- IV. MUGETAN GAINDI (ARO MODERNOA)
- V. GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (1800-1945)
- VI. MUNDUA OSATZEN

KAIER DIDAKTIKOAK

Kaier didaktiko hauen helburua “Euskara jendea” dokumental sorta B eta C mailako euskara ikasleei hurbiltzea da. Horretarako, dokumentalen kontakizunei jarraitzeko eta aipatutako mailei dagozkien hainbat eduki lantzeko jarduerak eskainiko dira kaieretan. Jarduera horiek bai banaka (ikasleak bere kabuz), bai taldeka (euskara eskoletan) erabiltzeko aukera eskainiko dute.

KAIERAK BANAKA ERABILI

Nahi izanez gero, kaier hauek bere kabuz erabili ahal izango ditu ikasleak, irakaslearen edo ikaskideen laguntzarik gabe. Horretarako ariketa bakoitzaren enuntziatua arretaz irakurtzea eta jarraitzea besterik ez dago, “talde lana” sinboloa duten atalak alde batera utzita ().

Ariketen erantzunak lan bakoitzaren azken orrian aurkituko ditugu.

GERREN ARTEKO PIZKUNDEAN (C maila)

Orri hauetan “Euskara jendea” sortako “Gerren arteko Pizkundean” dokumentalaren ikusketa eta lanketa euskara eskolan bideratzeko argibideak dituzu. Dokumental honekin Frantziako Iraultzatik II. Mundu Gerraren amaiera arte luzatu zen garai gatazkatsura bidaiatuko dugu, eta mende eta erdi horretan euskara jendeak bizi izan zituen gorabeherak ezagutuko ditugu.

Eskolak planifikatu aurretik, kontuan hartu ondoko hauek:

- Lan osoaren iraupena, dokumentalaren ikusketa barne, hiru ordotara luza daiteke. Balizko iraupen hori gogoan izan beharko duzu zeure eskolen ordutegira egokitzeko orduan.

- Irakaslearen kaieretan jarduera guztiak banaka egiteko moduan aurkeztuta daudenez, jarduera batzuk, nahi izanez gero, etxean egitea proposatu ahal izango duzu.

DOKUMENTALA IKUSI AURRETIK

A. Ikusiko den dokumentala eta egingo diren lanak ikasleei labur aurkeztu. Aurkezpena bideratzeko ikaslearen liburuko 3. orria erabil daiteke.

B. HASIERAKO BERTSOAK

1. “Napoleoni buruzko bertsoak” ariketa egin (ikas. lib., 4. or.).

C. GAI AZ PENTSA DEZAGUN

2. “Garai honi buruzko aditurik handiena naiz” galdera-jokoa egin (ikas. lib., 5. or.).

HELBURUA: Ariketa hauen helburua ikasleak dokumentala erosoago ikusteko prestatzea da. Horretarako, gai az pentsatzeko kanta bat eta joko bat eskainiko zaizkie.

DOKUMENTALA IKUSI BITARTEAN

C. ERANTZUNEN BILA

3. “Ikusi bitarteko lanak” ariketa egin (ikas. lib., 9. or.).

HELBURUA: Ariketa hau dokumentala ikusi bitartean arreta mantentzeko eta interesa bideratzeko erabiliko dugu. Horretarako, alde z aurretik egindako hipotesiak izango ditugu oinarri.

DOKUMENTALA IKUSI ONDOREN

D. LEHIAKETAREN ONDORIOAK

4. “Benetako aditua ote naiz?” ariketa egin (ikas. lib., 10. or.)

HELBURUA: Ariketa honen helburua ikasleei dokumentalean ikusitakoaz hausnartzen laguntzea da.

E. PUNTUAKETA MARKAK (I)

5. “Azken zuzenketa” ataleko adibidea aztertu eta ariketa egin (ikas. lib., 12. or.).

F. PUNTUAKETA MARKAK (II)

6. “Arau batzuk gogoratu” ataleko arauak irakurri eta aurreko ariketa zuzendu (ikas. lib., 14. or.)

7. “Nire kontaketa” ariketan proposatzen den testua idatzi (ikas. lib., 16. or.)

HELBURUA: Aurreko lan hauen egitean helburuak bi izango ditugu: batetik, *komak* erabiltzeko arau batzuk ikasten ahaleginduko gara; bestetik, testu idatziak nola planifikatu ahal diren gogoratuko dugu.

GOGOAN IZAN: Puntuaketa-marken erabilera egokiaren garrantzia argi utzi behar da. Horretarako, komeni da hurrengo egunetako idazlanetan lan honetan ikasitako arauen erabilpena bultzatzea. Helburu nagusia ez izan arren, komeni da idatziko duten testuaren planifikazioetan behar bezala bideratzea. Horretarako 5. ariketako adibidea dugu. Ahal izanez gero, ikasleen testuak zuzendu edo zuzentzen lagundu ikasitako komen erabilerari arreta berezia jarritz.

G. ONDORIOAK ETA AUTO-EBALUAZIOA (ikas. lib., 17. or.).

Ikasleek auto-ebaluazio fitxa banaka bete ondoren, balorazioa guztion artean egin.

HELBURUA: Ikasleek ikusitako dokumentala eta egindako lanak baloratzea.